

4. Jazarpen-kasu batean jazarpenaren elementuak identifikatzea.	<p>Hasiera: lehen une honetan saioaren helburuak eta erabiliko den dinamika azalduko dizkiegu ikasleei. Lan egiteko kontsignak zein diren ere gogoraziko diegu: parte-hartzea, besteekiko eta haien iritziekiko begirunea. Aurreko saioan eginikoa eta egindako ebaluazioa gogoraziko diegu (aurreko saioaren amaieran hitz egindakoa).</p>		5´	<ul style="list-style-type: none"> • Saioa giro egokian egin da. Giroa segurua, parte-hartzean oinarritua, askea, entzutekoa, begirunezkoa izan da eta gaiarekiko interesa azaldu dute. • Begirunez hartu dira iritziak, betiere besteek seguru sentitzeko duten eskubidea urratu gabe. • Modu aktiboan hartu du parte proposatutako jardueretan.
	<p>Bideoak ikustea. Bideo bakoitza ikusi ondoren, ikasleek, talde heterogeneotan jarrita, proposatutako gidoiaren arabera egingo dute eztabaida eta, ondoren, ideiak partekatuko ditugu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bideoak: <ul style="list-style-type: none"> · Bully dance. · Friends-futbol. · Egunon printzesa. · Levántate. <p style="color: blue;"><i>Bideoak lantzeko gida</i></p>	45´	
	<p>Amaiera: saioa amaitzeko, eginiko jardueraren inguruan hausnarketa egiteari minutu batzuk eskainiko dizkiogu beti: zer eta zertarako egin dugun, nola sentitu garen, zer atera den ondo eta hurrengo saioan zer hobetu behar dugun.</p> <p>Prozesuaren ebaluazioa: Saioaren amaieran, ordura arte eginiko lanaren ebaluazio espezifikoa egingo dugu: <i>Ebaluaziorako fitxa</i>.</p>		10´	